

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

**Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure proiektua aurrera eramateko behar ditugun funtsezko baliabideak maila ezberdinetan sailka ditzakegu, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

-Baliabide fisikoak: Baliabide fisikoen aldetik ez dugu gauza askorik behar, gauza gutxi batzuk baizik. Ez dugu bezeroek atentziorako telefonorik edukiko, arazoak baldin badituzte erosketa egiten ari diren dendek zenbakia eskura edukiko dute, eta deitu ahalko dute. Ordenagailua beharko dugu, bezeroek egiten dituzten erosketak koordinatzeko eta banaketa egingo dutenak martxan jartzeko, baina ordenagailua eta ordenagailuaren inguruko dena programatzailearen esku geratzen da. Orubea, programatzailearen etxea izango da.

Garraiorako autoak behar dira. Dendetan saltzen diren produktuak ere, baliabide fisikoak dira.

-Baliabide intelektualak: Baliabide intelektualetan programatzailearen koordinaziorako eta antolamendurako abilezia izango da.

-Giza-baliabideak: Banaketarako kontratatuko ditugun herritarrak izango dira gure proiektuaren giza-baliabideak. Programatzailea ere hemen barruan sartzen da.

-Finantza-baliabideak: Espero duguna, gure proiektuaren finantza-baliabideetaz diputazioa arduratzea da eta gure proiektuaren kostu ekonomikoez arduratzea.

Programatzailearen esperientzia ere garrantzitsua izango da, nahiko lan neketsua izan daitekeelako berea, dugun arrakastaren eta bezero kantitatearen arabera.

Herritarrek ere paper garrantzitsua izango dute gure proiektuan eta banatzerakoan izango duten adeitasuna eta bezeroekiko tratu egokia ere ezinbestekoa izango da.

